# *Gernuarekin erreakzionatzen duen pixoihala.*

***Goizane Sáenz de la Fuente, Irati Castro, Marta Codesido, Garazi Sainz eta Jon Xabier Basogain.***

## FUNTSEZKO SOZIETATEAK.

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat akordio eta enpresen laguntza behar ditugu. Guk gure buruz ezin dugu gure proiektua aurrera eraman; izan ere, ez dugu horretarako behar diren baliabideak. Hasteko pixoihalak egiten dakien enpresa batek gure pixoihala diseinatzen eta egiten lagundu behar liguke eta produktu kimikoak lantzen dituen enpresa batek gernuarekin erreakzionatzen duen eta kolorez aldatzen den zinta egiten lagundu beharko liguke. Era berean, gure proiektua bera gestionatzen laguntzen digun enpresa behar dugu, dena antolatzen lagunduko diguna.

Gure artean ere hainbat akordio egin behar ditugu: taldeko batek produktuaren publizitatea interneten eta telebistan egingo du, beste batek enpresekin harremanak kontrolatuko ditu eta beste batek gure arteko harremanak zuzenduko ditu eta gure kexak edo proposamenak entzun.



Hau da, gure barneko akordioez aparte, kanpoko enpresen laguntza ere behar dugu. Kanpoko enpresa hauek izango dira gure proiektua aurrera eramaten lagunduko gaituztenak; hortaz, ezinbestekoak izango dira hauekin egin beharreko akordioak. Gainera, IOIKANen kasuan taldeko batek egiten zuen webgunea; gure kasuan, webguneak eta on-line dendak egiten dakien enpresa edo pertsona batekin harremanetan jarri behar dugu.

Hortaz hauek izango lirateke gure proiektua aurrera eramateko behar ditugun enpresen zerrenda lehentasunaren arabera ordenatuta:

1.- Pixoihalak egiten dituen enpresa bat: pixoihala da gure produktuaren oinarri-oinarria eta, hortaz, ezinbestekoa dugu hau egingo digun enpresa.

2.- Produktu kimikoen enpresa: pixoihala bada gure produktuaren oinarri-oinarria, gernuarekin erreakzionatzen duen zinta da gure pixoihala bereizten duena. Hortaz, ezinbestekoa dugu akordio hau ere; izan ere, honi esker lortuko dugu gure produktua desberdintzea

3.- Interneten laguntzen digun enpresa. Guk sare sozialetan gure markaren publizitatea egin badezakegu ere, webgune bat eta on-line denda egiten eta diseinatzen duen enpresaren laguntza ere behar izango dugu.

Enpresa hauekin akordioak egiteak arriskuak murrizten laguntzen digu eta era berean behar ditugun baliabideak eskuratzen.

Hortaz, sozietateak oso garrantzitsuak dira guretzako hauek gabe ezin izango genukeelako gure proiektua aurrera eraman.




*LUSH markaren on-line denda. Guk ere, horrelakoa bilatzen dugu.*